

Oroitzapen kaxetan

**Itzea Urkizu
Arsuaga**

Errutinaren lorpen handiena izango da, akaso, asaldatzeko gaitasunari partida irabaztea. Elkarri ka-teatutako betebeharren sokan, begirada ezerk ez altxaraztea. Eta hor gaude gu, zu, bera eta ni; soka horri lotuak, udako ludoteketako haurrak hondartzara bidean nola.

Lehenengo egunean, miresgarria iruditzen zaie begiralearekin egindako jolasa eta, ia ziur, hurrengo bost egunetan ere bai; nobedadeen ajeak. Baina hurrek ere badakite zerbait errutinaz eta, sokaren sokaz, hilabetea amaitzerako, itzali zaie libertimenduarekiko maitemina.

Kontuak zer diren: haurtzaroa deskribatuz, beti da ederragoa gure makurraz aritzea. Beti da erosoago onartzea, nola ari garen norbere Twitter kontutik erailketa matxisten zerrenda konpultsiboak

salatzen, kaleek –edo bihotzek, edo tabernetako eztabaidek, behinik behin– sutan behar luketenean. Esaldi laburrak idazteko arteak patriarkatua eraitsiko balu bezala.

Ez, noski ezetz. Baina nolabait egin beharko dugu ohikeria hauen guztien memoria, gogora ekartzeko, adibidez, 2019. urteak artean 20 egun ere ez zituenean, ia egunak bezainbeste emakume erail zituztela. Kontatzeko, Emakume eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zuen erakunde berak, Jaizkibel konpainiari «mozal legea» aplikatu ziola. Edo, errelato bilakatzeko, errelatoetarako ere sinestezin zitzaizkigun hiru-le-trako-alderdi-ultren diskurtsoak.

Memoria izan daiteke erromantikoak denborari botatako begirada. Zauriak ixteko modu burokratikoegia da memoria,

zenbaitentzat; eta belaunaldi helduagoen matraka, gaztearen arnasa berriarentzat. Aitortzen dut, inoiz kontzeptu antzua iruditu izan zaidala memoriarena; lausoa, beharbada. Hain termino generikoa eta hain pertsonala, aldi berean; hain beharrezkoa, eta hain bortxatua. Hain historia liburuen neurrira maketatu, eta hain ahozkotasunean biziraute-ra kondenatua.

Denbora daramat, ordea, gure amonaitonen garaiko miseriak gure bilakatzera doazela pentsatzen. “Fakirraren aho-tsa” eleberrian bete-betean sartuta nagoelako izango da, akaso; eta Mikel Antza aske geratu delako, liburuan Martutenetik ihes egin duen une berean. Baina, aizue: errutina hilkorren aurka, gutxienez, bil ditzagun gure bizipenak, koadernoetan edo oroitzapen kaxetan. •

Maccabi, lagun mozkortia

Koldo Sagasti

Bi aste dira Pablo Casadok Madrilgo hauteskundeetarako hautagaien izenak jakinarazi zituela. Erkidegoko presidentetzarako lehiatuko dena Isabel Diaz Ayuso izango dela iragarri zuenetik ordu gutxira, PPko Komunikazio Idazkariak aldaketa txiki bat egin zuen bere sare sozialetako profiletan eta adierazpen konprometigarri bat ezabatu: «Israelen laguna». Ez dezagun pentsa presidentegaiak giza eskubideen arrazoibideak beretzat hartu eta apartheid erregimenarekiko laguntasun harremana apurtu duenik. Ayusok ez dio utzi Israelen laguna izateari; baina, non-

bait, pentsatuko zuen horrelako aitorten publikoa polemikoa izan litekeela goi mailako erakunde baten buru izateko xedea duen politikari batentzat. Israel kuadrillako lagun mozkortia bezalakoa da. Behar baino gehiago edaten duenean lotsagarri utziko gaitu, eta zenbaitetan gure laguna denik ere ukatuko dugu; baina, hala ere, maite dugu.

Datorren astean Tel Aviveko Maccabik Euskal Herria bisitatuko du, berriz ere. Gauza jakina da, saskibalo klub israeldar-rak ardura intelektual zuzena izan duela armada sionistak burututako zenbait gerra krimenetan. Hala ere, azken hamar

urteotan bezala, bertako erakunde publikoek, saskibalo klubak, prentsak eta polizia aparatuek ongietorri lagunkoia egingo diote erregimen sionistaren kirol enbaxadoreari.

70eko hamarkadan Springbok, Hegoa-frikako errugbi talde nazionala, mundu mailan boikotatu zuten bezala, goizago edo beranduago Maccabi ere apestatu bilakatuko da nazioarteko lehiaketetan. Orduan, gaur alfonbra gorria jartzen diotenek ukatu egingo dute behinola Israelen lagunak izan zirela; euren baitan lagun mozkortia maitatzen jarraitzen badute ere. •